



TXOSTENA, NAFARROAKO ZEZEN IKUSKIZUNAK ARAUTZEN DITUEN FORU DEKRETURAKO PROIEKTUA PRESTATU AURREKO PARTE-HARTZE PROZESUAREN GAINEAN

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikulua ezarritakoarekin bat, 2017ko martxoaren 2an, dokumentu bat argitara eman zen Nafarroako Gobernuaren Gardentasunaren eta Gobernu Irekiaren Atarian, Nafarroako zezen ikuskizunak arautzen dituen Foru Legearen aurreproiektua prestatu aurretik azalpena emateko, bildu nahian datorren arauak bereziki ukituko dituen herritar eta ordezkariak handieneko erakundeen ekarpen/iritzi/iradokizunak. Ekarpen horiek jasotzeko azken eguna 2017ko martxoaren 23a zen.

Aipaturiko epea bukatuta, 80 ekarpen jaso dira, horietako batzuk eduki berekoak. Ekarpenak 13 pertsonen, norberaren borondatez, eta 16 kolektibo eta elkarten egin dituzte. 29 parte-hartzaile hauetako 10 beste autonomia erkidego batekoak dira. Ekarpen hauek, Atarian argitaraturiko dokumentuan adierazitako gaiei dagokienez, honela multzoka daitezke:

1. Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak.

Jasotako 11 ekarpenak arazo berean zentratzen dira: **Zezenketadun ikuskizunen edukiarekin eta garatzeko moduarekin loturiko alderdien gaineko esku-hartze administratiboa, zezenketaren liturgiarekin loturiko gaiei dagokienez, Administrazioaren araubidekoak izan behar ez direnak.** Ekarpen hauek ondoko proposamenak egin dituzte:

- Zezenketaren liturgia osatzen duten errituen artean zenbaitek funtsezko izaera dute (parte hartzeko ordena zotz egitea, ekitaldien sekuentzia, sari ematea, abelburuen integritatea, etab.) eta beste batzuk, ez direnak horren funtsezkoak (zapiak, abisuetarako denbora kontaketa, etab.). Proiektuaren edukiak zezenketa garaikidea eratzen duen funtsezko elementuak jaso behar ditu, gutxienez ere organo bat eratu arte, ziurrenik ere osaera mistokoa (administrazioa-sektore pribatua), zezenketaren garapenari eragiten dion orotan arau eta diziiplina eskumenak bere gain hartuko dituen. (4)
- Liberalizazioarekiko desadostasuna adierazten dute (3)
- Beste jardura publiko batzuk bezala, sektorea liberalizatzeko eta autokudeatzeko planteamentuarekiko adostasuna adierazten du, baina uste du horretarako beharrezkoa dela aurrez sektorea antolaturik egotea. (1)
- Funtsezko alderdien gutxienezko araudi bat egitea. (1)
- Zezenketaren oinarriko egitura komuna eta zaindu behar diren printzipioak arautzea eta alderdi liturgikoak garatzea udal ordenantzen bidez edo kudeaketa uztea zezenaren inguruko sektore guztien interesak ordezkatzeko dituen eta administrazioarekin lankidetzan arituko den federazio baten esku. (1)

- Zezen ikuskizuna garatzeko esku-hartze administratibo, zuhur, justifikatu eta proportzionatu bat behar da, gure garaiko errealitate sozial eta ekonomikora egokitua. (1)

2. Onespeneren premia eta egokitasuna

Aurkezturiko 11 ekarpenetatik:

- Uste dute aldaketa beharrezkoa eta egokia dela (9)
- Beste jarduera publiko batzuk bezala, sektorea liberalizatzeko eta autokudeatzeko planteamentuarekiko adostasuna adierazten du, baina uste du horretarako beharrezkoa dela aurrez sektorea antolaturik egotea (1).
- Bi xedapen desberdin egiteko unea izan daiteke, bat zezen ikuskizunetarako eta beste bat herri-ikuskizunetarako (1)

3. Arauaren helburuak

3.1. Arriskua txikiagotzea, parte-hartzaileen, ikusleen eta hirugarren pertsonen osotasun fisikoa babesteko. Jasotako ekarpenak (10):

- Helburuarekin erabat ados daude (5).
- Uste du segurtasun neurriak antolatzaileekin eta parte-hartzaileekin adostu behar direla (1).
- Uste du gaur eguneko araubideak bermatzen duela parte-hartzaileen segurtasuna. Segurtasun neurriak proportzionatuak izan behar dira, zaindu nahi den hura ez suntsitzeko (1).
- Herri-ikuskizunekin loturiko araudi bakar bat ezartzea akastzat jotzen da, besta mota bakoitzean diren arrisku mailak modulatu gabe (1).
- Zalantzan jartzen da udalek erantzukizun handiagoak hartu behar ote dituzten eta ondoriozko kostuak ordaindu, segurtasun planari dagokionez (1)
- Berariazko segurtasun plana teknikari gaitu batek sina dezala eta erantzukizun zibileko aseguru bat izan dezala eskatzen da (1).

3.2. Abereen ongizate eta osasuna zaintzea. Jasotako ekarpenak (7):

- Helburuarekin erabat ados daude (3).
- Ez dira baimendu behar ikuskizunak, haietan abereei kalte egiten bazaie (2).
- Aldaketak bideratu behar dira abereen sufrimendua eta agonia denbora murriztera (1).
- Badira jada animalien ongizatea eta osasuna zaintzera bideraturiko arauak (1).

3.3. Ikusle diren pertsonen berariazko eskubideen arautze egokia. Jasotako ekarpenek (12) adierazten dute:

- Helburutzat jaso behar dela tauomakia sustatzea eta babestea (4).
- Helburuarekiko erabateko adostasuna (3).
- Gaur egungo araudiak jada babesten dituela ikusleen eskubideak (8).
- Bermatzeko ikuskizuna bere osotasunean garatzen dela, beharrezkoa da arautzea edukia eta arau/haustearen ondorio zigortzaileak (1).
- Ez badago lehendakaritza independenterik ezin direla arrakastarekin defendatu zaleen eskubideak (1).
- Etxebizitzetara sartzea edo irtetea errazten duten neurriak hartu behar direla, iraupen luzeko ikuskizunak direnean (1).
- Neurriak jaso behar direla, kultura gazteekin lotzeko eta adingabeek herri-ikuskizunetan parte hartzea izan dezaten.

4. Izan litezkeen bestelako aukerak, erregulatzailerak eta ez-erregulatzailerak

Jasotako ekarpenak (4) bi gairen ingurukoak dira:

- Koordinazio ahalegin bat egin behar da autonomia desberdinen eta gobernu zentralaren artean, zezenketadun ikuskizunei eta horiekin loturiko bestelako gaiei dagokienez. Erreferentzia gisa PENTAURO hartu behar da, hori baita estrategia egokia, Kultura Ministerioak sustaturikoa (3).
- Zuzenbide araubide iragankorra ezartzea, gaur egungo araudian dauden arauak indarrean daudela adieraziko duena, zezenketari dagokionez eta zezenketa aurreko zenbait operaziori dagokienez, Espainia guztirako aplikagarria den araubide bat xedatzen ez den bitartean (1).

Jasotako gainerako ekarpenak (24) zenbait kolektibo eta elkartek proiektuaren testu artikuludun txertatuko direla aurreikusitako zenbait alderdi zehatzen gainekoak dira, eta horrela sailka daitezke:

5.1. Orokorrak (7)

- Tauomakiako terminologiaren gaineko oharra (2)
- Abereak eta ikuskizunak sailkatzeko proposamena (1)
- Artekariaren edo edukitzailearen figura eta erantzukizunak arautzea (1)

- Indarrean den aseguru araubidea mantentzea (1)
- Emisio eskubideak: abeltzainaren baimena (1)
- Biziaren euskarri aurreratuan berriazko prestakuntza eta anbulantzia egokiak eskatzea, hala nola erantzukizun zibileko aseguru, osasuneko langileendako (1)

5.2. Ikuskizunen egitura eta garapenari dagokionez (7):

- Abelburuen adarpuntak moztea debekatzea (2)
- Gaur eguneko ekitaldien egitura mantentzea (1)
- Ez mugatzea zezenketaren iraupena (1)
- Altzairuen dimentsioak arautzea (ezten-hagak, banderillak, burtziak, etab) (1)
- "Pikaldien ekitaldia" egiteko proposamena (1)
- Zaldien eta abelburuen pisuaren eta adarren gaineko eta aitopenen gaineko oharrak (1)

5.3. Segurtasunari dagokionez (3):

- Zuzendari teknikoaren figura ezabatzea (1)
- Kostua zalantzan jartzea eta erantzukizuna hartzea segurtasun planari eta zuzendari teknikoari dagokienez (1).
- Herri-ikuskizunetako gune eta ibilbideen ezaugarrien gaineko proposamena (1)

5.3. Albaitariei dagokienez (7):

- Osasun publikoko albaitariaren presentzia eta eginkizunak berrezartzea (4)
- Zezenketetako zerbitzuko albaitarien kopurua handitzea eta beste albaitari bat paratzea herri-ikuskizunetarako (1)
- Izendapenen proposamena Albaitarien Elkargo Ofizialaren ardura izan behar da (1)
- Abelburuen osasun kontrola Nafarroako Gobernuak egin behar du (1)

Aldez aurreko kontsulta fasea itxiko duen txosten hau egin ondok, erregelamendu proiektuaren testu artikuluduna idazteko eta tramitatzeke fasea hasiko da. Testua, gai honi dagokionez esanguratsuenak diren kolektibo eta elkarteekin kontrastatuko da. Aipaturiko kolektibo eta elkartei dei eginen zaie xede honekin antolatuko diren laneko mahai sektorialetan parte hartzera.